# GAZTETXOENTZAKO FUTBOL TXAPELKETA

Jadanik bukatu zaigu mini-benjamin mailan larunbatero jokatu izan den gaztetxoen futbol txapelketa. 1988an jaiotakoen artean, San Lorenzo taldeak lortu du lehen postua, bigarren Ikastolako Beti-Gogor taldea izanez.



*Anaitasun Ikastolako futbol taldeetako bat dugu hau.*

1989an jaiotakoen artean, berriz, Ikastolako taldeak lortu du lehen postua, eta bigarren San Lorenzo geratu da.

Futbol-7 eta Futbol-11ri dagokienez, datorren martxoaren 23ra arte ligak aurrera jarraituko du, hala infantilen mailan nola alebin eta benjamin mailetan. Maila bakoitzean, aurreneko bi taldeek lortuko dute ligako txapelduna erabakiko duen faserako sailkapena. Sailkapena lortu gabe geratu diren beste taldeek, berriz, Kopa izango dute helburu.

Hauek ditugu maila ezberdinetako Ermuko taldeak:

Futbol-7: Alebin mailan Centro Kultural, Trunboia eta Basakatu (Ikastola) eta San Pelaio. Benjamin mailan Indarra eta Anaitasuna (Ikastola), San Lorenzo, Centro Cultural eta Teodoro Zuazua.

Futbol-11: Infantil mailan Tximista eta Osasuna (Ikastola), San Lorenzo, Centro Cultural eta Teodoro Zuazua.

**SANTOS VEGA**
**ASIER IBAIBARRIAGA**



SIRIMIRI TABERNA
Pintxo eta bokatak
Erdiko kale, 11

egunez egun euskararen alde!
aek
KALTXANGO EUSKALTEGIA
✆ 17 19 40

MASAIA TERAPEUTIKOA
ETA ESTETIKA
ARCOS
Zeharkalea, 12 • Tlf. (943) 17 63 81

PATXI TABERNA
Gau eta egun
Alde zaharreko betiko taberna

